


UDALEKO KOMUNIKAZIO- ARDURADUNAREKIKO HARREMANERAKO GOMENDIOAK




DATU GUZTIAK BILDU

Zerrenda bat izan HNGen sustapen-arloko kontu guztiak, erabiltzaile eta pasahitzekin eta kontu bakoitzaren kudeatzailearen datuekin.

GUTXIENeko KOMUNIKAZIO-PLANA

Urteko 5 ekintza nagusiak identifikatu, eta horien zabalkundearen gutxieneko aurreikuspen bat izan.




GURE LANAREN XEDEA

Modu laburrean idatzita izan behar dugu gure lanak herriko haurren, nerabeen eta gazteengan duen onura.

KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA

Ezagutu eta saiatu ikasturte/urte hasieran harekin bilera bat egiten edo harremanetan jartzen (email bidez bada ere) gure sailak zabaldu nahiko dituen ekintza nagusiak azalduz.



UDALEAN KOMUNIKAZIOKO PROTOKOLOAZ GALDETU

Protokolorik jasota ez balego, komunikaziorako irizpide nagusiak ezagutzea komeni da.

